

LARRE-ALDAKETA: BASERRITIK GORBEIARA

Enrike Etxebarriaren artaldearekin larre-aldaketan parte hartzeko aukera eskaintzen da datorren igandean, ekainaren 29an, Zeanurin (Bizkaia)

Urtero udaberrian natura neguko letargiatik iratzartzeaz batera, larre-aldaketaren lekuko izaten da Gorbeia, abelgorri, behor, ahuntz eta batez ere ardiak mendira zuzentzen baitira. Aurten ere —oraintsu arte ohikoa izan den baino hilabete beranduago—, ekainaren 29an, igandean, Elexartza baserritik abiatuz Arrabako landaraino burutuko duten larre-aldaketan Enrike Etxebarria artzaina eta bere artaldeari laguntzeko aukera eskaintzen du Ipizki Taldeak.

Antzinako indarrarekin ez bada ere, oraindino bizirik dirau abeltzantzak Gorbeia mendiaren inguruetako herrietan. Lur hauetan aspaldidanik abelgorri, zaldi, ahuntz eta batez ere ardi aziendek bazkatzen dute. Urtaroek dakartzaten eguraldi aldaketen ondorioz, Gorbeialdeko abeltzainek mendiko larreak utzi behar izaten dituzte. Lehenengo elurteak iristearekin batera abeltzainak eta euren ganaduak haraneko barrutietara jaisten dira,

mendia lurmenu eta belar berria ernetzen hasi arte bertan geratzen direlarik.

Udaberria uda bilakatzen den heinean, berriro

hartuko dute gorako bidea basoko ganaduek, hurrengo negura arte Gorbeia landa emankor eta freskoetan bazkatuz. Eta hori izango da datorren igandean, ekainaren 29an —ohikoa izan duena baino hilabete beranduago—, Enrike Etxebarriak eta bere artaldeak egingo dutena Elexartza baserritik abiatuz Arrabako landaraino iristen den ibilbidea burutuz.



Enrike Gorbeiarra bidean

Gorbeiatik jaitsi zenetik bere baserri inguruan zaindu du artaldea Enrikek, eta azken hilabeteetan, neguan eta udaberrian artzaintzak eskatzen dituen lanak egiteari gogor ekin dio: lehenengo axurien jaiotza, hazkuntza eta salmenta, eta gero esnebatzea eta esne hori saltzea. Gainera, oraintsu arte Gorbeian egiten izan duen zeregina, ardi mozketa, mendira igo aurretik burutu du.

Gorbeia egonaldia

Jadanik Gorbeia mendian belarra hazi egin da eta ganaduak hartzeko prest azaltzen dira larreak elikagai gozoa eskainiz, horregatik bertara igoko da Enrike artaldearekin, hurrengo hilabetean —duela bost urtera arte bi hilabeteko egonaldia izaten izan da— bere ardiek emango dioten esne aberatsaz baliatuz goi mailako gaztak egiteko.

Uztailaren amaiera arte Arraban, Lekanda haitzaren oinarrian duen txabola izango da bere bizilekua eta artaldea zaintzea, esnea batzea eta gaztak egitea izango dira egunero egin behar dituen lanak. Goizez eta arratsalde, berrehunen bat ardiren errapeak igaroko dira Enrikeren eskuetatik, jarraian gaztagintzari ekiteko. Horrelakoa izango da egunen joan-etorria, uztailaren 31k, San Inazio egunak, ardiak antzutu eta artzainaren udako mendiko egonaldia amaitu dela iragarri arte.



Ana Mari artaldea bedeinkatzen Gorbeiarra abiatu aurretik

ARTZAINA: ENRIKE ETXEBARRIA

Izen-abizenak: Enrike Etxebarria.

Jaiotza data: 1943ko abenduaren 8a. Beraz, 70 urte ditu.

Jaiotokia: Zeanurin (Bizkaia), Uribe auzuneko Elexartza baserrian.

Bizitokia: Zeanurin (Bizkaia), Uribe auzuneko Elexartza baserrian.

Noiztik artzain: Hamalau urte zituela, eskola utzi, eta Basilio bere aitaren lanbideari heldu zion Enrikek. Artzain izateaz gain, 1960 eta 1992 urteen bitartean Arrabako landan dagoen Mendi Federakunderen Aterpetxeaz arduratu ziren aita- semeak.

Gorbeia txabola: Arraban dauka txabola Enrikek, Lekanda haitzaren azpian hain zuzen ere. Toki bereberean izan zuen



Gaztagintza izango da Gorbeia egonaldiko zereginetako bat.

babeslekua bere aita Basilio.

Duela hogeita hamarren bat urte

txabola berriztatu egin zuen

Enrikek eta apurka-apurka gaur

egungo beharrianetara egokitu du; adibidez, eguzki energiaren bitartez lortutako argindarra dauka.

Txabolari atxekituta gaztategia dago.

Artaldearen bazkalekua: Elurteak iritsi arte Arraban bazkatzen du Enrike Etxebarriaren artaldeak.

Udako zereginak: Enrikek uda aldean artaldea zaintzearekin batera bete beharko dituen zeregin bereziak honako hauek dira:

* **Esnebatzea:** Bi aldiz egiten du, goizean eta iluntzean.

* **Gaztagintza:** Bi aldiz egiten du, goizean eta gauean.



Enrike Etxebarria artzaina

EGITARAUA = ARDIEN LARRE-ALDAKETA **EKAINAREN 29an, IGANDEAN, ZEANURIN**

* **09:00etan:** Zeanuriko plazan bilduko gara, Elexartza baserrira zuzentzeko.

* **09:15ean:** Elexartza baserriaren aurrean Enrike Etxebarriarekin elkartuko gara. Honek artaldea bildu eta Ana Marik, bere arrebak, betiko ohitura jarraituz, bedeinkatu egingo du, ur bedeinkatua botaz eta "San Joanek jagon daizala Arrabako landan" esaldia esanez.

* **09:30ean:** Gorbeiarantz abiatzea.

* **12:30ean:** Arrabako landan, Enrikeren txabolara helduko gara. Txabola bisitatu eta hamaiketako egiteko aukera izango da.

* **13:00etan:** Jaitsiera, abiapuntura heltzeko.

* **14:30etan:** Abiapuntura helduko gara.

* **OHARRA:** Nahi duten guztiek dute larre-aldaketan parte hartzeko aukera.